



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko irailaren 9a

100. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-25/ITP-00017. Interpelazioa, bizikidetzaren arloko politikari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (3. or.).
- 11-25/ITP-00018. Interpelazioa, Nafarroako zerbitzu publikoak indartzeko politika orokorrari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (4. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 11-25/POR-00275. Galdera, Kattalingune zerbitzuaren hobekuntzei buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (5. or.).
- 11-25/POR-00276. Galdera, pisu turistiko ilegalen jarraipenari eta zehapenari buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (5. or.).
- 11-25/POR-00277. Galdera, Nafarroako ondare historiko-artistikoko gunetako suteei aurre egiteko jarduketako protokoloari buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (6. or.).
- 11-25/POR-00278. Galdera, Nafarroa 2027an Kirolaren Europako Eskualde izendatzeko hautagaitzari buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (7. or.).
- 11-25/POR-00280. Galdera, biometanizazio-plantak paratzearen komenigarritasuna baloratzeko kutsadura-mapa bat egoteari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (7. or.).
- 11-25/POR-00281. Galdera, D-PAI ereduko ikasleek zientzietako ikasgaiak euskaraz edo ingelesez egin ahal izateko aukerari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (8. or.).
- 11-25/POR-00282. Galdera, bidaidetik gabeko adingabeei behar bezalako arreta emateko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (9. or.).
- 11-25/POR-00283. Galdera, 31.200 €-ra bitarteko errentei beherapen fiskala aplikatu ahal izateko neurriei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).
- 11-25/POR-00284. Galdera, ikasturtearen hasierari eta erronkei buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/POR-00285. Galdera, bizikidetzak-estrategiei buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (10. or.).

- 11-25/POR-00286. Galdera, Osasun Ministerioarekiko eta Red.es enpresa-erakunde publikoarekiko lankidetzaz hitzarmenari buruzkoa. María Teresa Esporrín Las Heras andreak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00287. Galdera, Antxon Alonso Egurrolarekin izandako bilereari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00288. Galdera, 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N-121-A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00289. Galdera, Nafarroako Gobernuan ustelkeriarik ez dagoela baieztatzeko arrazoiei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00290. Galdera, Kontuen Ganberak, Jardunbide Egokien Aldeko eta Ustelkeriaren Kontrako Bulegoak eta auditeore batek berrikusi beharreko kontratuak Guardia Zibilaren Unitate Zentral Operatiboari eman ez izanari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00291. Galdera, biometanizazio-plantak direla-eta kezkatu dauden udalekiko adostasuna bilatzeko neurriari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00292. Galdera, araubide erkideko autonomia-erkidegoen zorra barkatzeari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00293. Galdera, bidaidetik gabeko adingabe gehiago iristeari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00296. Galdera, gorroto-diskurtsoei buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00297. Galdera, biometanizazio-plantei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (16. or.).
- 11-25/POR-00298. Galdera, Nafarroako Gobernuak lehendakariak ikerketa-batzordean agerraldirik ez egiteari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/POR-00299. Galdera, Automozioaren Europako Aliantzan eta Municheko Automobilaren Aretoan izandako parte-hartzeari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (17. or.).
- 11-25/POR-000300. Galdera, ustelkeria-kasuei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (18. or.).
- 11-25/POR-000301. Galdera, lan-istripuei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (18. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-25/ACOP-00015. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Israelen palestinar herriaren aurka darabilen genozidioa dela-eta (19. or.).
- 11-24/GPER-00022. Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorren ordutegia aldatzea (19. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-25/ITP-00017. Interpelazioa, bizikidetzaren arloko politikei buruzkoa**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako interpelazioa, bizikidetzaren arloko politikei buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako

Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak irailaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroa aitzindaria izan da bizikidetzaren arloko politiketan.

Izan ere, 2021eko abenduan, Nafarroako I. Bizikidetzeta Plana onetsi zuen gobernuak. Plan horrek 2021etik 2024ra bitarteko indarraldia izan zuen, eta honako helburu orokor hau zuen: «Nafarroa demokratiko, plural eta anitz batean bizikidetzeta berdintasunez eta askatasunez eraikitzea». Lehen plan horren aldia amaituta, joan den astean II. Plana aurkeztu zen jendaurrean.

Hori dela-eta, honako interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari, bizikidetzaren arloko bere politikei buruzkoa.

Iruñean, 2025eko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## **11-25/ITP-00018. Interpelazioa, Nafarroako zerbitzu publikoak indartzeko politika orokorrari buruzkoa**

*MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako interpelazioa, Nafarroako zerbitzu publikoak indartzeko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascués andreari zuzendutako honako interpelazio hau aurkezten du, hark Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Zerbitzu publikoek gaur egun gure erkidegoan duten egoerak eskatzen du eztabaida orokorra egitea zerbitzu horien egoerari, erronka nagusiei eta Nafarroako Gobernuak zerbitzu horiek indartzeko eta horien iraunkortasuna bermatzeko hartuko dituen neurriei buruz.

Horregatik guztiagatik, Nafarroan zerbitzu publikoak indartzeko politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten dugu.

Iruñean, 2025eko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-25/POR-00275. Galdera, Kattalingune zerbitzuaren hobekuntzei buruzkoa***KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, Kattalingune zerbitzuaren hobekuntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Kattalingune zerbitzua lizitatu du. Sexu- eta genero-aniztasunaren arloko arreta integralerako zerbitzu hori 2016an jarri zen abian. Kontratu berriak hobekuntzak dakartza hala ordutegian nola arreta-programetan.

Nafarroako Gobernuak zer hobekuntza abiaraziko du Kattalingune zerbitzuan?

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

**11-25/POR-00276. Galdera, pisu turistiko ilegalen jarraipenari eta zehapenari buruzkoa***IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, pisu turistiko ilegalen jarraipenari eta zehapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta

Turismoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Turismoa etengabe ari da gora egiten Nafarroan, nahiz eta erkidegoko turismo-eredua ez datarren bat masifikazioaren fenomenoarekin. Halere, pisu turistikoaren kopurua nabarmen igo da, eta horrek tentsioak eragiten ditu eguneroko bizitzan eta gure herrien garapen sozialean. Bereziki kezkarria da erabilera turistikoko etxebizitza ilegalen

ugaritzea, bizilagunen arteko bizikidetzan nahiz sektorearen plangintza ordenatuan baitaukatategina.

Zer ari da egiten Departamentua pisu turistiko ilegalen jarraipena egiteko eta eta horiek zehatzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

## 11-25/POR-00277. Galdera, Nafarroako ondare historiko-artistikoko guneetako suteei aurre egiteko jarduketa-protokoloei buruzkoa

*IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, Nafarroako ondare historiko-artistikoko guneetako suteei aurre egiteko jarduketa-protokoloei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azkenaldian izandako suteek –Kordobako meskita-katedralekoak eta zenbait autonomia-erkidegotan izandakoek, adibidez– agerian jarri dute ondare kontserbatzeko eta babesteko neurriak indartu beharra dagoela. Gertakari horiek inpaktu zuzena izan dute garrantzi handiko ondasunetan, hala nola Donejakue Bidean (UNESCOK Gizateriaren Ondare izendatua), eta agerian geratu da zein garrantzitsua den kontserbazio- eta jarduketa-protokolo argiak edukitzea larrialdiei aurre egiteko.

Zer jarduketa-protokolo dago Nafarroako ondare historiko-artistikoko guneetan suteei aurre egiteko?

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

## **11-25/POR-00278. Galdera, Nafarroa 2027an Kirolaren Europako Eskualde izendatzeko hautagaitzari buruzkoa**

*IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, Nafarroa 2027an Kirolaren Europako Eskualde izendatzeko hautagaitzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroak iragarri du bere hautagaitza aurkeztuko duela 2027an Kirolaren Europako Eskualde gisa aitortua izan dadin; horren bidez, aitortza egiten zaie kirola eta jarduera fisikoa gizarte-koheziarako, osasunerako eta bizi-kalitaterako tresna gisa sustatzeko konpromisoagatik nabarmentzen diren Europako eskualdeei.

Nafarroaren hautagaitzak zer indargune ditu 2027an Kirolaren Europako Eskualde gisa aitortua izan dadin?

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

## **11-25/POR-00280. Galdera, biometanizazio-plantak paratzearen komenigarritasuna baloratzeko kutsadura-mapa bat egoteari buruzkoa**

*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, biometanizazio-plantak paratzearen komenigarritasuna baloratzeko kutsadura-mapa bat egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken asteotan ikusi dugu herritarrek hainbat mobilizazio egin dituztela Nafarroako beste horrenbeste herritan, biometanizazio-planten proiektu batzuk auzitan jartzeko.

Mobilizazio horietaz gain, jakin badakigu mila-ka alegazio aurkeztu direla proiektu horietako batzuk direla-eta.

Guk dakigula, gainera, ez da neurririk hartu nekazaritzan mindetatik eta bestelako ongarri organikoetatik heldutako metano gasaren nahiz bestelako berotegi-gasen isuriak murrizteko, ekonomia zirkularra sustatuta, Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko Legearen 53. artikulua ezartzen duenari jarraituz; ekonomia zirkularreko egiazko neurriak, alegia, ezen ez lurrak eta urak kutsatzekoak.

Ba al dago Nafarroako lurren eta uren kutsadura zertan den dioen maparik, baloratu ahal izateko ea komenigarria den Nafarroan biometanizazio-plantak paratzea, landa-eremuko populazioan eragiten duten egonezinaz harago? Izan ere, euren lurraldean halako instalazioak paratzearen aurka daude, eragiten dituzten problemak direla-eta.

Iruñean, 2025eko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

---

## **11-25/POR-00281. Galdera, D-PAI ereduko ikasleek zientzietako ikasgaiak euskaraz edo ingelesez egin ahal izateko aukerari buruzkoa**

### *ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, D-PAI ereduko ikasleek zientzietako ikasgaiak euskaraz edo ingelesez egin ahal izateko aukerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio galdera honi ahoz erantzun diezaion.

Nafarroako Arartekoak, uztailaren 13ko Q25/395 Ebazpenaren bidez, Hezkuntza Departamentuari aholkatu dio D-PAI ereduko ikasleek zientzietako irakasgaiak euskaraz edo ingelesez aukeratu ahal izatea. Ebazpena etorri da D ereduko ikasleen hainbat familiak 57/2024 Foru Aginduaren kontra aurkeztutako kexa baten ondorioz.

Zer asmo du Hezkuntza Departamentuak Arartekoak emandako aholkuari dagokionez?

Iruñean, 2025eko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

## 11-25/POR-00282. Galdera, bidaiderik gabeko adingabeei behar bezalako arreta emateko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, bidaiderik gabeko adingabeei behar bezalako arreta emateko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer egingen du hartu dituen eta hartuko dituen adingabeei behar bezalako arreta ematen zaiela bermatzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## 11-25/POR-00283. Galdera, 31.200 €-ra bitarteko errentei beherapen fiskala aplikatu ahal izateko neurriei buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, 31.200 €-ra bitarteko errentei beherapen fiskala aplikatu ahal izateko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak lehendakariak iragarri du beherapen fiskala aplikatuko zaiela 31.200 €-ra bitarteko errentei; hori dela-eta:

Zer neurri hartuko da iragarpen hori betetzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

**11-25/POR-00284. Galdera, ikasturtearen hasierari eta erronkei buruzkoa***KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, ikasturtearen hasierari eta erronkei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Hezkuntza Departamentuak ikasturtearen hasierari buruz, eta zer erronka ekarriko ditu ikasturteak?

Iruñean, 2025eko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

**11-25/POR-00285. Galdera, bizikidetza-estrategiei buruzkoa***AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, bizikidetza-estrategiei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuak lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da gure erkidegoan bizikidetza lantzen jarraitzeko Nafarroako Gobernuak darabilen estrategia?

Iruñean, 2025eko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

## 11-25/POR-00286. Galdera, Osasun Ministerioarekiko eta Red.es enpresa-erakunde publikoarekiko lankidetzahitzarmenari buruzkoa

MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak egindako galdera, Osasun Ministerioarekiko eta Red.es enpresa-erakunde publikoarekiko lankidetzahitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Maite Esporrín Las Heras andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasunaren arloan zerbitzu digital adimendunak garatzea funtsezkoa da egungo bilakaera teknologikoaren araberako tresna informatikoak edukitzeko.

Jakinik Nafarroako Gobernuak lankidetzahitzarmen bat egingen duela Osasun Ministerioarekin eta Red.es enpresa-erakunde publikoarekin zerbitzu horiek Osasun Sistema Nazionalaren esparruan sustatzeko, sozialisten talde parlamentarioak honako hau galdetzen dio Osasuneko kontseilari Domínguez jaunari:

Zein da hitzarmenaren eduki zehatza, eta zeintzuk dira Nafarroarako hitzarmenetik heldu diren diru-sarrerak eta betebeharrak ekonomikok?

Iruñean, 2025eko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

## 11-25/POR-00287. Galdera, Antxon Alonso Egurrolarekin izandako bilereari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Antxon Alonso Egurrolarekin izandako bilereari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zeri buruz hitz egin zenuen Antxon Alonso Egurrola enpresariarekin izandako bileretan?

Iruñean, 2025eko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## **11-25/POR-00288. Galdera, 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N-121-A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruzkoa**

*PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N-121-A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da N-121-A errepidea 35+300 kilometro-puntutik 40+900 kilometro-puntura bitarte 2+1 bide bihurtzeko proiektua?

Iruñean, 2025eko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

## **11-25/POR-00289. Galdera, Nafarroako Gobernuan ustelkeriarik ez dagoela baieztatzeko arrazoiei buruzkoa**

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuan ustelkeriarik ez dagoela baieztatzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan oinarritzen zara irmotasunez baieztatzeko zure gobernuan ez dela ustelkeriarik egon?

Iruñean, 2025eko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **11-25/POR-00290. Galdera, Kontuen Ganberak, Jardunbide Egokien Aldeko eta Ustelkeriaren Kontrako Bulegoak eta auditore batek berrikusi beharreko kontratuak Guardia Zibilaren Unitate Zentral Operatiboari eman ez izanari buruzkoa**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Kontuen Ganberak, Jardunbide Egokien Aldeko eta Ustelkeriaren Kontrako Bulegoak eta auditore batek berrikusi beharreko kontratuak Guardia Zibilaren Unitate Zentral Operatiboari eman ez izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez dituzu eraman Unitate Zentral Operatibora (UCO) zure aginduari jarraikiz Kontuen Ganberak, Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoak eta auditoretza batek aztertzeraz bidali diren kontratuak?

Iruñean, 2025eko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **11-25/POR-00291. Galdera, biometanizazio-plantak direla-eta kezkaturik dauden udalekiko adostasuna bilatzeko neurriei buruzkoa**

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako galdera, biometanizazio-plantak direla-eta kezkaturik dauden udalekiko adostasuna bilatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko kontseilari José Mari Aierdi jaunak irailaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Une honetan, Nafarroan, sei biometanizazio-planta daude jada baimendurik (Lerinen, Caparrosen, Tuteran, Cababillasen, Mendigorrian eta Arakilen); beste zortzi kasuan kasuko ingurumen-baimena izapidetzen ari dira Foru Administrazioan, eta beste hiruk proiektu aurreko kontsultak egin dituzte. Guztira, 17 proiektu dira, zenbait eskualdetan banatuta daudenak; horrek esan

nahi du Foru Administrazioak ikuspegi global batekin aztertu behar dituela proiektu horiek, eta modu orekatuan garatzen direla bermatu behar duela, interes orokorra eta lurralde-interesa aldeztuz eta ukitutako toki-entitateak aintzat hartuz. Badakigu gizarteak gero eta kezka handiagoa duela orain izapidetzen ari diren proiektuetako batzuei dagokienez, eta udal batzuek ere helarazi dute kezka hori.

Zer neurri edo proposamen ari da lantzen Departamentua balizko eraginengatik kezkatuta agertu diren udalekiko adostasuna bilatzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

---

## **11-25/POR-00292. Galdera, araubide erkideko autonomia-erkidegoen zorra barkatzeari buruzkoa**

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, araubide erkideko autonomia-erkidegoen zorra barkatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakari María Chivite Navascués andreak irailaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Estatuko Gobernuak araubide erkideko autonomia-erkidegoen 83.252 milioi euroko zorra bere gain hartzea ahalbidetuko dion lege-aurreproiektua onetsi du.

Legebiltzar honetan behin baino gehiagotan hitz egin dugu neurri horrek Nafarroari ekar diezaiokkeenaz. Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Nafarroako Gobernuko lehendakariari: zer urrats egiten ari zara araubide erkideko autonomia-erkidegoen zorra barkatzeak Nafarroan eragirik izan ez dezan, eta Foru Komunitatearen zorra malgutzeko neurriak aplikatu ahal izan daitezen eta Nafarroak berak ere egoera horretatik onuraren bat atera dezan?

Iruñean, 2025eko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

## 11-25/POR-00293. Galdera, bidaidetik gabeko adingabe gehiago iristeari buruzkoa

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, bidaidetik gabeko adingabe gehiago iristeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

2025eko irailaren 11ko Osoko Bilkurarako galdera arrunta.

Nafarroako Gobernuko lehendakaria:

Baloratu al duzu zer ondorio izanen duen Nafarroarentzat bidaidetik gabeko adingabe gehiago iristeari Espainiako Gobernuak proposatu duen banaketa nazionala egiten bada?

Iruñean, 2025eko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## 11-25/POR-00296. Galdera, gorroto-diskurtsoei buruzkoa

*DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, gorroto-diskurtsoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau

aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak 2025eko irailaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den urrian harriduraz jaso genuen Valtierako Udalak jaiotza-tasari laguntzak emateko onetsi zuen deialdiaren berri, izaera diskriminatzaile nabarmena baitu.

Ordutik hona, eta egoera hori zuzendu beharrean, harriturik entzun genituen abuztuan alkatearen adierazpenak, zeinetan familia migratzaileak eta bidaidetik gabeko adingabeak nahasten baitzituen beste behin, eta mespretxu osoz hitz egiten baitzuen; hitzez hitz zioen "eutsi egiten ziola" esandakoari. Erabateko arrazakeria eta xenofobia zerien bere hitzei, ultraeskuinik setatienaren moldean.

Nafarroako Gobernuak zer darabil gogoan gorroto-diskurtsoei aurre egiteko?

Iruñean, 2025eko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

## 11-25/POR-00297. Galdera, biometanizazio-plantei buruzkoa

*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, biometanizazio-plantei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan Parlamentuaren Osoko Bilkuran:

Uda honetan bizilagunen eta elkarte ekologisten mobilizazio handiak izan ditugu biometanizazio-plantak paratzearen aurka, batez ere kezkatuta daudelako biometanizazioak eragin ohi dituen ingurumen-inpaktuarekin, usainak areagotzearekin, airearen eta lurzoruen kutsadurarekin eta makro-granjak sustatzearekin.

Hondakinen kudeaketa, horren ondoriozko trafikoaren gorakada eta instalazio horiek bizitegi-eremuetatik gertu jartzeko beldurra dute oinarri protestek –esate baterako, 2025eko uztailean Vianan egindakoa–.

Guztira, biometanizazio-plantak paratzeko 17 proiektu daude Nafarroako zenbait tokitan.

Ikusita gizarte-kezka handia sortu dela hainbat udalerritan eta biometanizazio-planta horiek ugartu egin direla Nafarroan, zein izanen da Nafarroako Gobernuaren estrategia hedapen hori antolatzeko eta gure lurraldearen errealitatera eta benetako beharretara egokitzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

## 11-25/POR-00298. Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ikerketa-batzordean agerraldirik ez egiteari buruzkoa

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ikerketa-batzordean agerraldirik ez egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Adierazpen publikoetan behin eta berriz adierazi duzu erabateko lankidetzari nahi duzula legebiltzar honetan eratuak ikerketa-batzordearekin.

Hori horrela bada, zergatik ez duzu zuk zeuk eskatuta agerraldia egiten edo zergatik ez diozu PSNri eskatzen agerraldia egin behar dutenen zerrendan sar zaitzan?

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

---

**11-25/POR-00299. Galdera, Automozioaren Europako Aliantzan eta Municheko Automobilaren Aretoan izandako parte-hartzeari buruzkoa***AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Automozioaren Europako Aliantzan eta Municheko Automobilaren Aretoan izandako parte-hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak irailaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den astean, legegintzaldiaren erdia igaro dela-eta egindako ekitaldian, lehendakari zaren horrek iragarri zenuen bidaia egingo zenuela Alemaniara, Automozioaren Europako Aliantzan eta Municheko Automobilaren Aretoan parte hartzeko. Bertan, gure erkidegoko automobilgintzaren etorkizunerako muntako iragarpenak egingen zirela espero zenuen.

Zer balorazio egiten duzu Alemaniara egin berri duzun bidaiari buruz eta Automozioaren Europako Aliantzan eta Municheko Automobilaren Aretoan parte hartu izanari buruz?

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

**11-25/POR-000300. Galdera, ustelkeria-kasuei buruzkoa***JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, ustelkeria-kasuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak irailaren 11ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Chivite andrea, uste duzu ezagutzen ari garen ustelkeria-kasuek eragina dutela Nafarroako Gobernuaren sinesgarritasunean?

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

**11-25/POR-00301. Galdera, lan-istripuei buruzkoa***EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, lan-istripuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gobernuari:

2025eko irailaren 11ko Osoko Bilkurarako gaurkotasun handiko galdera.

Nafarroako Gobernuako lehendakari andrea, Nafarroa izanik lan-istripuen tasarik handiena duen erkidegoa, zure gobernuak zer egingen du langileei zuzenean eragiten dien gaitz hori amaiarazteko?

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **11-25/ACOP-00015. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Israelek palestinar herriaren aurka darabilen genozidioa dela-eta**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

### **Lehenengoa:**

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak irmo eta zeharo gaitzesten du Israelek palestinar herriaren aurka darabilen genozidioa.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak nazioarteko erkidegoari oro har eta Europar Batasunari zehazki dei egiten die gehiago inplika daitezen Israeli behin betiko su-etena exijitserakoan, bai eta aurrerabidea egin dezaten erregioan bakea eta segurtasuna berrezartzeko prozesu politikoan,

bi estatuen konponbidea gauzatuta eta Nazioarteko Bake Konferentzia bat eginda.

3. Genozidioa errefusatzeko, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak erabaki hau irakurriko du, eta minutu bateko isilunea gordeko da, 2025eko irailaren 11ko Osoko Bilkuran (osteguna).

### **Bigarrena:**

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-24/GPER-00022. Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegia aldatzea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 8an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

Legelari nagusiak emandako jarraibideekin bat, Zerbitzu Orokorretako buruak Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegia aldatzea proposatzen duen txostena aurkeztu dio Mahaiari, Mahaiari eta Eledunen Batzarrari zuzendutako idazkiak aurkezteari dagokionez.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2024ko azaroaren 11ko erabakiaren bidez onetsia, eta ezartzea Legebiltzarreko Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren asteleheneko bilkuretan jorratuko den gaitzerrandaren sartuko diren idazkiak aurkezteko epea gehienez ere bilkura-egunaren aurreko ostegunaren 15:00etan izanen dela.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3. Erabaki hau legelari nagusiari, zerbitzuburuari eta Idazkaritza Nagusiaren Prentsako eta Protokoloko Atalei jakinaraztea.

Iruñean, 2025eko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

